

## **Mondragon Unibertsitateak eta Goierri Fundazioak eskualdean ingeniari-tza-ikasketak sustatzeko hitzarmena berri dute, eta ondorioz eraikin berria izango dute kanpusean**

2009/06/05

Ø Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa eta Goierri Fundazioak gaur berri dute 2001etik abian zuten hitzarmena, Goierri unibertsitate-ikasketak garatzea xede duena

Ø MUren Goierriko kanpusean eraikitzen ari diren eraikina 2009/2010 ikasturterako izango da prest, eta Ingeniaritza Fakultatea eta Lortek teknologiko zentroa hartuko ditu, lotura-teknologietan espezializatutako Euskal Herriko zentro bakarra

Ø Eraikin berrira 12 milioi euroko inbertsioa bideratu dute eta 9.000 metro koadroko azalera du, sotoa, beheko solairua eta beste bi kontuan hartuta

Ø Kanpusak 200 ikasle baino gehiago hartuko ditu, Ingeniaritza Mekanikoko Gradua (lau urte) eta bestelako ingeniari-tza-ikasketetako lehen mailak ikasi ahal izango dituztenak, guztiak Europako hezkuntza-eredu berrira egokituak



**Ordizian, 2009ko ekainaren 4an.** Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa eta Goierri Fundazioak lankidetzaren hitzarmena berri dute gaur, eta horren bidez Goierriko kanpusean unibertsitate-ikasketak bultzatu nahi dituzte. Horrela, ingeniari-tza-ikasketak sustatu eta garatzeko helburuarekin eraikin berria izango du kanpusak datorren urritik aurrera. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Mekanikoko graduoko ikasleak hartuko ditu eraikinak, eta horiekin batera lotura-teknologietan espezializatutako Lortek ikerkuntza-zentroa.

Eraikinak 12 milioi euroko inbertsioa izan du eta 14 hilabetetan eraiki dute. Guztira 9.000 metro koadroko azalera du, sotoan, beheko solairuan eta beste bi solairutan banatuta, eta gainera, 4.000 metro koadroko lurrazpiko aparkalekua izango du.

Horrenbestez, urritik aurrera Ordiziako kanpuseko eraikin berriak hartuko dituen 200 ikasleek Europako goi mailako hezkuntzan finkatu diren erronken ildotik burutu ahal izango dituzte Ingeniaritza Mekanikoko graduoko ikasketak, lau urteko iraupena dutenak. Era berean, beste ingeniari-tza-ikasketetako lehen mailak ere egin ahal izango dituzte bertan, guztiak Europako hezkuntza-ildoei egokituak. Bestalde, Lortek ikerkuntza-zentroaren jarduna ere hartuko du eraikinak. Euskal Herrian aitzindari den zentroaren bidez inguruko enpresek lotura-teknologien arloan dituzten beharrei erantzun nahi diete Unibertsitateak eta Goierri Fundazioak.

Halaber, Unibertsitateak Goierriko kanpusean eskainiko dituen hirugarren zikloek ere izango dute tokia eraikin berrian. Ziklo horiek lotura-teknologiek zuzenean lotuta daudenez, arlo horretan adituak izango diren profesionalak trebatuko dituzte.

Eraikinaren beheko solairuak gunek komunak hartuko ditu, hala nola liburutegia eta kafetegia, lehenengo solairuan ingeniari-tzako gelak egongo dira eta bigarrenean, berriz, I+G laborategiak eta Lortek zentroa.

### **Goierriko kanpua**

Mondragon Unibertsitatearen Goierriko kanpua 2001. urtean sortu zen

zonaldeko enpresen beharrei erantzuteko xedearekin, eta Goierri Fundazioaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren emaitza izan zen. Guztira 18 udal eta 40 enpresa biltzen dituen Goierri Fundazioaren helburuak prestakuntza eta eskualdearen garapen teknikoa, ekonomikoa eta soziala dira. Ingeniaritza Mekanikoan espezializatutako kanpusa da, bereziki lotura-teknologietan. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ingeniari-titulazioei dagozkien prestakuntza-jarduerak hartzeaz gain, kanpusa teknologia-eta enpresa-zerbitzuen zentroa izateko sortu zen, aplikatutako ikerkuntzara bideratua.

Abian jarri zenetik, zortzi ikasturtetan 1.000 ikasle inguru igaro dira kanpusetik. Unibertsitate-prestakuntzarako ikastetxearen bidez eskualdearen garapena sustatzeko helburuan bat datoz Mondragon Unibertsitatea eta Goierri Fundazioa, eta horren emaitza izan da Goierriko kanpusa. Izan ere, ingeniari mekanikoa eta lotura-teknologiaren inguruko espezializazioa irakasten dituzte kanpusean, hau da, zonaldeko jarduera sozioekonomikoarekin eta enpresen beharrek zuzenean lotuta dauden ikasketak.

### **Goi mailako Hezkuntzaren Europar Espazioa**

Hezkuntza-eredu propioari eta bereizgarritasunei esker, gaur egun Mondragon Unibertsitatea erakunde sendoa da eta honako ezaugarri hauek ditu: enpresekiko lotura sendoa, ikasleen enplegarritasun maila handia eta kalitatezko prestakuntza. Izan ere, bere hezkuntza-sistemak ez ditu ikasleak ezagutza zientifiko eta teknikoetan bakarrik tratatzen, haien gaitasunak eta balioak ere lantzen ditu.

Baina batez ere unibertsitate berritzailea da. Ildo horretan, eskaintza akademikoa Goi mailako Hezkuntzaren Europar Espaziora egokitu duen lehen euskal unibertsitatea izan da. Amaitzean den ikasturtean Europara egokitutako sei titulu eskaini ditu. Horrek agerian uzten du Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzailea eta aitzindaria. Zazpi urte daramatza hezkuntza-eredua lantzen, Mendeberrri proiektua, Europar Espazioaren eskakizunekin bat datorrena eta bikaintasunezko osoko prestakuntza helburu duena. Zalantzarik gabe, erakundeak egin duen apusturik garrantzitsua da, eta enpresetan eta erakundeetan dauden beharrei eta ematen ari diren aldaketei erantzutea du xede. Unibertsitateko arduradunen iritziz, behar eta aldaketa horien ondorioz ezinbestekoa da hezkuntza-konzeptua erabat aldatzea, eta modu horretan aurrea hartu diote goi mailako hezkuntzaren esparruan Europatik etorri diren irizpideei.

Prestakuntza teknikoarekin batera, hezkuntza berriaren oinarrietako bat trebetasunak, gaitasunak eta balioak garatzea da. Lan-munduko erronka berriei aurre egiteko gaitasun pertsonalak, sozialak eta profesionalak izango dituzten pertsonak prestatzea du helburu ereduak; norbere prestakuntzaren ardura izateko gai diren pertsonak, taldean lan egin, proiektuak sustatu, erabakiak hartu, negoziatu eta komunikatzeko gai direnak. Gainera, eredu hirueleduna da eta ikasleak bere lana gutxienez euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurrera eramateko gaitasun handiarekin burutuko ditu ikasketak. Horretaz gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobeztatuko ditu.